



TXIKITTO!

2024ko abendua 228. zenbakia



NEGUKO OPORREN ZAIN!

AURKIBIDEA

TXISTEAK	3	BANAKIXAN	10
		BANAKIXALA	
IKASLEEKIN	4-5	DENBORAPASAK	11
BERRIKETAN			
IKASTETXEETAKO	6-7	LEHIAKETA	13
BERRIAK			
OPORREN ZAIN	8	ZER IRAKURRI	
		BITXIKERIAK	14
GURE NAGUSIEKIN		IPUINA	15
BERBETAN	9	ZU BAI MARGOLARI ...	16

 **eta kitto!**
euskara elkarteak

Argitaratzailea
“...eta kitto!”
Euskara Elkarteak
Urkizu, 11
20600 Eibar
Tel: 943 206776

**Erredakzio-
kontseilua**
Maider Aranberri,
Ana Aizpurua,
Ekhi Belar eta
Eibarko ikastetxeak

Administrazioa
Marisol Uriarte

Erredakzioa
Maider Aranberri eta
Ekhi Belar

Ikusentzunezkoak
Yanire Sagredo

Azaleko argazkia
Ekhi Belar

Copyright-a
Txikitto!

Lege-gordailua
SS-1111/96





- Amatxo, amatxo! Idazten ikasi dut!
- Eta zer ikasi duzu?
- Ez dakit, ez baitut irakurtzen ikasi!



- Ama, maite zaitut!
- Eta nik ere bai, baina orain esan zure aitaxori ere bai, pozik jarriko da.
- Aita, aita, asko maite dut amatxo.

Zer esaten dio harri batek beste bati?
Ezer ez, harriek ez dute hitz egiten!



Zer esaten dio semaforo batek beste semaforo bati?
Ez begiratu, aldatu egin behar naiz.

Egun batean Jaimitok, eskolatik etxera heltzean,
esan zion amari:

- Amatxo, amatxo, gaur gauza berri bat ikasi dut
eskolan: Lurra mugitzen da!

Ondoren, amak erosketa batzuk egitera bidali zuen,
baina ez zen bueltatzen eta bere bila atera zenean,
banku batean eserita ikusi zuen; eta galdetu zion:

- Zer egiten duzu hemen?

- Itxaroten nago, ea noiz datorren supermerkatua.





Neguko oporren zain

Dagoeneko bi hilabete baino gehiago pasa dira udako oporretatik itzuli garenetik eta beste opor sasoi baten atarian gaude. Urkizu eskolako Mahdi Lamoun, Hector Hernandez, Ghita El Meskini eta Arwa Arahmane oporrak iritsi zain daude, jaiegunez gozatzeko hainbat plan dituzte-eta. Urkizuko laukoteak ez ditu Gabonak ospatzen, baina negua gustoko dute, batez ere elur artean ibiltzea. Izan ere, hotzarekin ondo moldatzen dira, eta berotzeko zer hobeto txokolate beroa hartzea baino?

Eurek bezala, zuek ere neguko oporrez goza ezazue!

BIDEOA
YOUTUBEN





OI-DA batean

- 1- Neguko ala udako oporrak?
- 2- Zer nahiago duzu: hotz asko ala bero asko pasatzea?
- 3- Urte berrirako desira bat?
- 4- Negua pasatzeko toki bat?
- 5- Nola nahiago berotu: sutondoaren edo berogailuaren alboan jarrita ala arropa askorekin manta artean?
- 6- Txokolate beroa ala gaztaina erreak?

Elkarrizketa dibertigarri hau ...eta kitto! Euskara Elkartearen Tik Tok kontuan duzue!



MAHDI LAMOUN

- 1- Udako oporrak.
- 2- Hotza.
- 3- Patinete bat.
- 4- Donostia.
- 5- Berogailuaren alboan.
- 6- Txokolate beroa, gaztainak ez zaizkit gustatzen.



HECTOR HERNANDEZ

- 1- Udako oporrak.
- 2- Bero asko.
- 3- Ezer.
- 4- Etxea.
- 5- Manta artean.
- 6- Txokolate beroa.



GHITA EL MESKINI

- 1- Udako oporrak.
- 2- Bero asko.
- 3- Ez daukat ezer eskatzeko.
- 4- Marokon
- 5- Manta eta arropa askorekin.
- 6- Txokolate beroa.



ARWA ARAHMANE

- 1- Udakoak.
- 2- Hotza.
- 3- Telefono bat, ez daukadalako.
- 4- Arrate, elurrarekin jolasteko.
- 5- Berogailuaren ondoan.
- 6- Txokolate beroa.



ARRATEKO ANDRA MARI

Kaixo lagunok! Hemen gaude San Andres, Emakumeenganako indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna eta Euskararen Nazioarteko egunak ospatu berri!!! Horrez gain, LH1 eta LH2koak zinemara joan ziren eta 2. mailakoak Urki auzoa ezagutzera. LH5 eta LH6koak Andretxean izan dira eta San Andres egoitzara ere bisita egin dugu. Agenda 30eko "Patruila berdeko" logoa aukeratzeko lehiaketa antolatu dugu eskolan eta irabazleak izendatzeko ekitalditxo bat egin dugu aretoan. Abenduaren 2an patruila berdea martxan jarri da!! Amaitzeko, abenduaren 20an, auzoan zehar gabon kantak abestera aterako gara eta ondoren Olentzeroren eta Mari Domingiren bisita izango dugu eskolan!!!



ITURBURU

Azaroaren 25ean Tratu Onaren eguna ospatu genuen ikastetxean eta elkarbizitza hobetzeko asmoz, bizikidetza arautegi txikitxo bat sortu genuen ikasleen artean eta ekitaldi xume baina ederra egin genuen. Azaroaren 29an San Andres azoka egin genuen eta urtero bezala, taloak egin eta bapo jan ondoren, Eibarko kantu zahar ederrak eta bertsoak eskaini genizkien jaialdia ikustera gerturatu ziren familia ugari. Bukatzeko, abenduaren 3an, Euskararen Eguna ospatu dugu, eta oraingoan "Ixotu euskeria! Ez dein argixa emetau!" lelopean, linternak ixotu eta Euskal Herrian euskaraz abestu eta dantzatu dugu. Gora euskeria, euskaldunon altxor haundixa!!

SAN ANDRES

Eibarko patrioiaren eguna, San Andres, ospatzeko eskolan hainbat ekintza antolatu genituen. Hilaren 28rako, ikasleek ekarritako hainbat produkturekin azoka prestatu genuen: baserriko lanabesak, aintzinako tresnak, jantziak, garaiko barazkiak, lekaleak, frutak, fruitu lehorrak, odolkiak, ogiak... Hurrengo egunean, hilaren 29an, San Andres bezpera, mailaka azoka ikustera joan ginen eta arratsalderako, mailaka ere, landutako euskal dantzak eskolako guztien aurrean dantzatu genituen. Primeran pasa genuen! Gora San Andres!!!





AMAÑA

Amaña Herri Eskolako Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleok, eskolako gainontzeko ikasleekin batera, azaroaren 25ean betaurreko moreak jantzi genituen Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko Nazioarteko Eguna aldarrikatuz. "Berdintasunean hezte da gure konpromisoa" lelopean, eta betaurreko moreak jantzita, hainbat abesti dantzatu genituen primeran pasatuz, hala nola: Eraso sexistarik ez, Marimore, Denok zu... Ondo pasa oporrak eta datorren urtera arte!



LA SALLE

Gabonak gerturaten ari dira eta bitartean beste hilabete zirrara garri bat pasa dugu ikastetxean. Gaztainerre ospatu genuen, patioan erretako gaztaina goxoak dastatuz. Tartean, hainbat proiektu eta tailer lantzen aritu gara ikasturte guztietan. Amaitzeko, baserritarrez jantzi eta San Andres azoka muntatu genuen eskolan. 6. mailakoek prestatutako taloak txorizoarekin jan eta euskal-dantzak dantzatu genituen patioan. San Andres bikainak!!! Eta hilabetea bukatzeko, Euskararen Eguna aldarrikatu dugu, gure gela guztietan euskararen bonbilak ixotuz eta Untzagako mintzodromoan parte hartuz. Oporrak amaitzean berriz izango gara hemen!

URKIZU

Azaroaren 13 eta 14an hip-hop ikastaroarekin jarraitu zuten 5 eta 6. mailako ikasleek eta koreografia bikain bat prestatzeko aukera izan zuten. Azaroaren 19an, 3. mailakoak Elgoibarren dagoen Mufomi museora egin zuten irteera. Azaroaren 25ean, Indarkeria matxistaren kontrako nazioarteko egunean, ekintza bereziak izan genituen ikasleak gaiaren inguruan kontzientzia hartzeko. Azaroaren 29an San Andres bezpera ospatu genuen eta urtero bezela, azoka, dantzaldiak eta bertako produktuen zozketak egin genituen. Abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Eguna behar bezela ospatu genuen eskolan: euskararen dorrea eraiki genuen, 6. mailako ikasleek mintzodromoan parte hartu zuten eta arratsaldean, kantaldia eta guraso elkarteak antolatutako txokolate jana izan genituen. Egun ahaztezina guztiontzat!



ALDATZE

Urtero bezela, aurten ere, abenduaren 3an Euskararen Eguna ospatu dugu. Euskararen Nazioarteko Eguna aprobetxatuz, eta "ixotu euskera" lelopean, Aingu gerturatu zaigu gure hizkuntza erabili eta zabaltzeko premia aldarrikatzeko. Eskolako paretak apaindu ditugu, dantzan eta kantuan ibili gara, eta euskal kulturara hurbildu gara Kahoot-era eta Bingo Musikatura jolastuz. Ondo dakigu guztiona dela euskara zaintzeko ardura, argixa ez dein emetau.



Aurtengo gabonetan ere aspertzeko tarterik ez!

GABONETAKO HAUR PARKEA

- 2 eta 12 urte bitarteko umeei zuzendutako **Gabonetako Haur Parkea Astelena** frontoian.

- Abenduak **21, 26, 27, 28** eta **30** eta urtarrilak **2, 3** eta **4**.

- 11:00-14:00 / 16:30-20:30 (Abenduak 31 11:00-14:00).

- Sarrera: **3€** (doan EMGIren bonoekin).

TOBOGANA

- Ume zein helduei zuzendutako **tobogana Untzaga Plazan**.

- Abenduak **21, 22, 23, 26, 27, 28, 29** eta **30** eta urtarrilak **2, 3** eta **4**.

- 1:00-14:00 / 17:00-21:00 (abenduak 24 eta 31 19:30era arte)

- 4 jaitsiera: **3€** (doan EMGIren bonoekin).

OLENTZEROREN KALEJIRA

- Gutunak uzteko **buzoia**: abenduaren **23ra arte** Pegoran eta Portalean.

- Abenduak 24 Olentzeroren **kalejira** Urki-zutik (11:30) Untzagara.

- 12:30etik aurrera **gutunak jasoko** ditu Udaletxean.



ERREGEEN KABALGATA

- **Dantza-emanaldia**: urtarrilak **5, 17:00**, Ipurua kiroldegian.

- Kabalgata: urtarrilak **5, 19:00**, Untzagatik kalejira. Ondoren, azkeneko eskutitzak jasoko dituzte.

EIBART

- Gabonetako **Artisau Azoka** Untzagan. -- Abenduak 18-Urtarrilak 5.

- 11:00-14:00 / 17:00-20:30





Amanda eta Alan amama-iloba elkartu ditugu oraingoan, Amaña herri-eskolan, bertan ikasten baitu Alanek, LHko 6. mailan. Venezuelen jaiotakoak dira baina badira hainbat urte Eibarren bizi direla. Solasaldi polita izan dute, Gabonak eta beste kontutxo batzuen inguruan.

Nagusitan zer izan nahi zenuen/duzu?

Amanda: Enpresaburua

Alan: Astronauta

Zer egiten duzu asteburuetan?

Amanda: Pelikulak ikusi, palomita jaten.

Alan: Amamaren gauza bera baina horrez gain Nintendo-ekin jolasten dut eta lagunekin irteten naiz.

Zer da Gabonetatik gehien gustatzen zaizuna?

Amanda: Jendeak sortzen duen giroa.

Alan: Oso giro polita egoten dela.

Eta gutxien?

Amanda: Ezer ere ez.

Alan: Janaria.

Zer eskatu diozu Olentzerori?

Amanda: Osasuna.

Alan: Jolas bat eta urrutitik gidatzen den autoa.

Zein izango litzateke oparirik onena?

Amanda: Daukadanarekin pozik nago.

Alan: Motor bat.

Zer ikusten duzu telebistan?

Amanda: Suspenseko serieak.

Alan: Akzioko gauzak.

Edari bat?

Amanda: Koko-ura.

Alan: Marakuia-zukua.

Jateko bat?

Amanda: Tarta gelatinarekin.

Alan: Sushia.

Zer ez zenuke sekula jango?

Amanda: Animalia arraroak.

Alan: Eskorpioia.

Turroia ala polborroia?

Biak: Turroia.

Zein ordutan oheratzen zara?

Amanda: 22:00etan.

Alan: 21:00-22:00 inguru.

Zer hiru gauza eramango zenuke irla desertu batera?

Amanda: Pospoloak, labana eta liburu potooooooooo bat.

Alan: Janaria, matxete bat eta Nintendoa.

Zein da historiako asmakizunik onena?

Amanda: Protesiak eta mugitu ezin direnei mugitzeko aukera ematen dieten gailuak.

Alan: Internet.

Zein pertsona ospetsu eza-gutu nahiko zenuke?

Amanda: Kalkutako Teresa.

Alan: Albert Einstein.

Zer eskatzen diozue 2025ari?

Amanda: Aldaketako eta belaunetako mina desagertzea.

Alan: Patinete berri bat.



BAÑAKIXAN BAÑAKIXALA



Aries

martxoak 21-apirilak 20

Hozteko arriskua izango duzu datozen egunotan. Normala, ez duzu gainetik manga motzeko kamiseta kentzen! Berokiaren azpitik jertsetxo bat jartzeak ez dizu kalterik egingo.



Leo

uztailak 21-abuztuak 20

Hasi zara kirola egiten! Bazen ordua! Hobeto sentitzen zara, ezta? Ba aprobetxatu gabonetako oporrak ere kirola egiten jarraitzeko, ez alpertu orain e? 2 zenbakiak emango dizu zortea.



Sagittarius

azaroak 21-abenduak 20

Ura edatea, osasuntsua ez ezik, bizitzeko beharrezkoa dela badakizu, ezta? Noiz edan zenuen azkenekoz? Joan den hilean?? Horrenbeste freskagarri beharrean hobe zenuke ur gehiago edango bazenu.



Taurus

apirilak 21-maiatzak 20

Iritsi dira oporrak! Lan asko egin duzu azkeneko asteotan eta merezitako atsedernaldia ailegatu zaizu. Aprobetxatu oporrak, baina kontuz litxarreriekin, tripako minez egon nahi ez baduzu.



Virgo

abuztuak 21-irailak 20

Kaletik zoazenean zabaldu gehiago begiak, egunen batean zulo batera eroriko zara eta ez zara ezta enteratu ere egingo! Bestalde, zure zenbakia 9 izango da eta kolorea horia.



Capricornius

abenduak 21-urtarrilak 20

Elurra noiz egin zain zaude baina astroek esaten didate itxaron egin beharko duzula. Eta are gehiago esango dizut, hurrengo astean baliteke manga motzean egotea. Aiii, klima-aldaketa...



Gemini

maiatzak 21-ekainak 20

Datozen asteotan 5 zenbakiak zortea emango dizu, zure kolorea berdea izango da eta animalia katua. A! eta kasu egin didazu eta hasi zara kantuan neurrian egiten, ondo! Zure ingurukoek eskertuko dute.



Libra

irailak 21-urriak 20

Berba egitea ondo dago, baina horrenbeste??!! Entzuten ere jakin egin behar da. Irratia irentsi duzula dirudi, barren! Inguruko baten bat aspertu duzu jada, kontuz.



Aquarius

urtarrilak 21-otsailak 20

Hasi zara arraina jaten, oso ondo! Baina orain arrautzak jateari utzi diozu! Zer dela eta? Esan amamari patata-tortilla gozo hori egiteko, horri ezingo diozu ezetzik esan!



Cancer

ekainak 21-uztailak 20

Gabonetako oporretan inoiz baino erakargarriago egongo zara, txantxak egingo dituzu, txistek kontatuko dituzu, dantzari egongo zara... Mundu guztiak nahiko du zurekin egon!



Scorpius

urriak 21-azaroak 20

Datozen egunotan erromantiko-erromantiko egongo zara, maitagarri totala! Hori da zortea zure ingurukoentzat... Eta baten batek atzemango du hori eta zure aldamenean egon nahiko du... Adi!



Piscis

otsailak 21-martxoak 20

Txintxoa izan zara eta eskatutakoa ekarriko dizue Maridomingik eta Olentzerok, beno, benetako errinozerontea izan ezik... Baina, lasai, horren orde z jasoko duzu beste opari polit bat.



HIZKI-ZOPA

ANIMALIAK

8 daude

1. Astoa

5. Arraina

2. Behia

6. Sugea

3. Katu

7. Untxia


4. Lehoia

8. Hariza

A	S	T	O	A	K	A	T	A
U	N	T	X	I	A	H	E	Z
K	Z	L	E	H	O	I	A	T
A	S	U	G	E	A	T	R	R
T	U	U	B	E	H	I	A	A
U	A	R	R	A	I	N	A	H



SEI DESBERDINTASUNAK



LABIRINTOA





LEHIAKETA

7 DESBERDINTASUNAK



Bidali erantzunak **URTARRILAK 14** baino lehen
...eta kitto! Euskara Elkartea- Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak.....

Adina..... Tel.



AURREKO ASTEKO IRABAZLEA

Aupa LIBE, txapeldun! Aurreko aleko erantzunak bikain asmatu dituzu eta zozketan zeu irten zara irabazle. Liburua eta ...eta kitto!-ko bisera zuretako!
ZORIONAK!

**Begiak** 6 urtetik aurrera

Jael eta bere amonarekin batera, beldurrari aurre egiten dion istorio batean murgilduko gara. Gure hurrek bizi duten munduaren errealitatea berrasmatzeko saiakera, irudimenez, barne unibertsoz eta bizipozaz josia. Maitasunaz, enpatiaz eta orainaren botereaz mintzo den istorioa.

**Puka, Ananse armiarma eta bi erraldoi** 8 urtetik aurrera

Puka artzain-txakurraren lagunak kresal eta arrain usaina nagusi diren herri batean daude. Halako batean, sekulako burrunbak hartu du herriko portu txikia; neska arraunlarien garaipena ospatzen ari dira. Etxafuegoak botatzearekin bat Pukak, beldurtuta, hanka egin du herriko kaleetan barna, Ananse armiarma lagun berriarekin. Alabaina, lagunek ez dute bakarrik utziko; Marina Mostaza, Nora Ketchup, Kepa Piper, Blas Amuarrain eta Lizar Txanpu Pukaren desagerepenaz ohartu direnean, ziztu bizian atera dira bila.

**Hiri galdua** 10 urtetik aurrera

Kaixo, nire izena Sara-Li da, eta botere magikoak ditut. Txano eta Oscarren abenturetatik ezagutuko nauzu agian, baina hau nire abentura da. Lepoan seinale bitxi bat dudala eta Txinako azti ospetsu baten ondorengoa naizela deskubritu ondoren, magia ikasten hasi naiz Avalongo azti-eskolan, Jauregia esaten diote etxe handi eta dotore batean. Han, ni bezalako haur gehiago daude. Behin, ikuspen bitxi batek etxe azpian dagoen haitzulo batera eramán gintuen. Eta hortxe hasten da istorio hau.

**BITXIKERIAK**

Hodei batek milioi bat tona inguru pisatzen du.



Australia ilargia baino zabalagoa da. Ilargiaren diametroa 3.400 km-koa da, eta Australiaren diametroa, berriz, ia 4.000 km-koa.

Venus da erlojuaren orratzen noranzkoan biratzen duen planeta bakarra.





Aitona zapataria

Orain dela urte asko, zapata denda batean, aitona bat bizi zen. Zaharra zen, xelebrea, alaia, bizarduna eta oso langilea. Askok gustatzen zitzaion zapatak egitea.

Egun batean, aitona esnatu zenean, bi zapata pare falta ziren dendan eta aitonatxoak oso kezkatuta zegoen. Hurrengo egunean, beste lau zapata pare desagertu ziren. Oso kezkatuta, ondoko merkatura joan zen eta han, dendako saltzaileari, Maritxuri, galdetu zion:

- Aizu, Maritxu! Ikusi al duzu norbait nire zapata dendara sartzen gauean?
- Ez, ez dut inor ikusi. Zergatik galdetzen duzu?
- Zapatak desagertzen ari zaizkidalako.

Bat-batean, dendara itzuli zenean, hiru zapata pare falta ziren. Gau hartan, aitonatxoak tranpak jarri zituen. Goizean, zapata bat falta zitzaion eta egun osoan atearen ondoan geldituko zela erabaki zuen. Gaueko hamaiketan, Olentzero sartu zen etxera eta zapatak hartu zituela kontatu zion, umeei berari eskatu zizkiotelako. Olentzerok barkamena eskatu zion eta zapatak egiteko tramankuluak oparitu zizkion aitonatxoari. Hortik aurrera, oso pozik bizi izan ziren eta aitonatxoak zapata hobeagoak egin zituen Olentzerok oparitutako tramankukuei esker.

Paule Martin





ZU BAI MARGOLARI!

